



# GAUR, ZIZURKILGO JAIEN LEHEN EGUNA

Igandera arte herria jaietan murgilduko da; besteak beste, musika, ikuskizunak, haurrentzat ekitaldiak,... izango dira **HV**

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2009-09-09**

VII.URTEA 1.771.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Tomas Ugaldebere, Itziar Jauregi eta Angela Alamo, atzo eginiko aurkezpenean. ENERITZ MAIZ

## II. Ibarra Galtzakomik Lehiaketa abiarazi dute

**IBARRA** Azaroaren 10era arte aurkez daitezke lanak; «literaturan trebatzea eta idazmena eta sormena lantzea» dira helburuak **5**

**XI. Garagardo  
Festa hilaren  
17tik 20ra  
izango da  
Zerkausian**

**TOLOSA** 27 garagardo mota izango dira; musikari eta kirolari tarte egingo diote **6**

## Udazkeneko kultur eskaintzan, euskal ekoizpenak nagusi

**TOLOSA** Ekitaldi nagusia Topic zentroaren inaugurazioa izango da, azaroaren 27an **4**

## Ama Birjinaren jaien azken egunean ere festa giroa nagusi

**TOLOSALDEA** Bedaion, Lizartzan, Alkizan eta Elduainen atzo bukatu ziren herriko jaiak **2-3**



Dantzarien emanaldia izan zen atzo arratsaldean Lizartzan. ESTI EZEIZA

**JON CASARES**  
AURRERA PERRAKO KIDEA

«Penagarria da  
Inguruarte  
bezalako gune  
berdea galtzea»

**LEITZA** Zaldi Eguna bertan behera geratu da aurten **7**



ASIERIMAZ



sarrerak



TXOKOA hitza

HITZAK harpidedunentzat **4 sarrera pare** ditu

**Peio ta Pantxoa**

«40 URTEZ GUREKIN KANTUZ»  
(Zuzeneko grabaketa)

Irailak 11 • Ostirala  
22:00etan  
Tolosako Leidorren

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula





Ezkerreko argazkian, Elduaingo haurrek egindako antzerki emanaldiaren une bat. Eskuinean, Peñagarikano eta Telleria bertsotan Bedaion. I. GARCIA

# AZKEN EGUNEAN ERE JAI

**Jaiak** » Alkizan, Bedaion, Elduainen eta Lizartzan Ama Birjinaren Eguna ospatu zuten atzokoan, herriko jaiei amaiera ematen zien eguna.

## ERREDAKZIOA

Ama Birjinaren Egunean mezenagusiak eta hamaiketakoek zein bazkariak ez zuten hutsik egin hainbat herri eta auzotan: Alkiza, Bedaion, Elduain eta Lizartzan. Horrez gain, festen azken egunean eta eguraldiak lagunduta hainbat eki-

taldi izan ziren. Bedaion, esaterako, hamaiketako eta bazkaria izan zuten Artubi elkartean eta tartean bertsolariak eta trikitilariak aritu ziren. Bertsolariak ezagunak ziren Bedaion: Anjel Mari Peñagarikano eta Millan Telleria. Bertsotan hasi eta segituan aurkitu zuten

gaia: 1981an bertan izan ziren bi bertsolariak eta hamabi edo hamahiru urtez izan ziren bertako festetan. Garai horietako kontuak gogoratuz txalo zaparradak eta irribarreak jaso zituzten entzulegoarengandik.

## Haurren antzerki arrakastatsua

Elduainen ez zuen ikusmin gutxiago sortu herriko haurrek egindako antzerkia. Bi antzezlan egin zituzten. Alde batetik txiste bat

kontatu zuten eta ondoren Pirritx eta Porrotx pailazoetaz mozorrotuta istorio bat sortu zuten. Herriean antzerkia ikasten aritu diren haurrak izan ziren aktoreak eta lan txukuna egin zuten.

Alkizan, egia esan, arratsaldeko kontzertuak ez zuen ikusmin handia sortu. Hala ere, Edson Goya brasildarrak bere herriko kanta eder eta zenbaitzutan oso ezagunak jo zituen. Baina aurrean oso gustura daude alkizarrak, azken urteotan baino jende gehiago izan

baita festetan. Larunbatean egindako alkizarren eta anoetarren arteko herri kirol lehiaketak, esaterako, ikusle asko izan zituen eta giro bikaina izan zen herrian.

Lizartzan ere herriko festen azken eguna izan zuten. Arratsaldean dantzasokaren txanda izan zen. Dantzariz jantzitako guztiak emakumezkoak ziren eta dantzak berak eskatu ahal, gizonezkoak plazarara ateratzen joan ziren, aurrerakua dantzatu eta taldean dantzariekin jartzeko.



Lizartzan atzo arratsaldean egindako dantzasokaren une bat. ESTI EZEIZA



Edson Goya brasildarra, atzo, Alkizako plazan. I. GARCIA



Alkiza eta Anoetaren arteko herri kirol lehiari, Alkizako sokatira taldea. HITZA



Alberto Roteta alkizarra larunbateko herri kirol lehiaketan. HITZA

## Bigarren eskuko azoka antolatu dute Mugikortasun Asterako

**Mugikortasun Astea** » Villabonako Berdura plazan egingo dute azoka, hilaren 19an; 10:00etatik 13:30era izango da zabalik.

### ERREDAKZIOA

Hilaren 16tik 22ra Mugikortasun Astea 2009 ospatzen da Europa mailan eta aurtengo leloa *Hobetu zure hiriko klima* da. Urtero egin ohi den moduan, aurten ere Tolosaldeko zombait udalerrik hainbat ekintza antolatuko dituzte, horien artean, bigarren eskuko materialen azoka.

Hilaren 19an, larunbata, izango da azoka Villabonako Berdura plazan, 10:00etatik 13:30era. Bertara interesa duen orok eraman ahal izango du azokan saltzeko materiala. Hain justu, materiala uzteko epea hilaren 17ra arte egongo da zabalik eta udalerrri ezberdinetan izango da horretarako aukera. Ekitaldiaren antolatzaileak hainbat udalerrri (Aduna, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil) eta Tolosaldea Garatzen dira.

Informazio gehiagorako 689 749 439 telefono zenbakira deitu edo [www.tolosalde.net/garatzen](http://www.tolosalde.net/garatzen) eta udal webgunek bisitatu daitezke.

### » MATERIALA UZTEKO

- **Aduna.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Anoeta.** Kiroldegian, 09:00etatik 12:30era, 15:00etatik 21:00etara. Larunbatean 09:00etatik 13:00etara.
- **Asteasu.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Ibarra.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Irura.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Villabona.** Udaltzainguan, aurretik deituta.
- **Zizurkil.** Udal bulegoetan, 09:00etatik 14:00etara.

## Xakearen txokoa eta ikastaroak martxan jarriko dira aurki

**Anoeta** » Xakearen txokoa abian jarriko dute etzi, hilaren 11n; ikastaroak hilaren 28an hasiko dira eta Ikastolan emango dira.

### ERREDAKZIOA

Aurten ere xake txokoa antolatu du Anoetako Udalak. Horretaz gain xake ikastaroak ere izango dira bai Udalak bai Ikastolak antolatuta. Xake txokoari dagokionez, ostiral honetan hasiko da, hilak 11 eta ekainaren 5a arte iraungo du. Udaletik gogoratzen dutenez, «xakean jolasten ondo pasatzeko aukera bikaina» dago, familia osorako pentsatuta, klub bat balitz bezala. «Erabat ludikoa, denbora pasatzeko» dela diote arduradunek. Ez da derrigorrezkoa ostirale-

ro joatea, norberak nahi duenean baizik, konpromisorik hartu gabe.

LH1 eta LH6 bitarteko ikasleei zuzenduta dago xake txokoa. Ostiralean izango da, 17:15etik 20:15era, Hozpel kaleko udal lokalean (irailean KZguneko sarreran izango da). Ikasturte osorako prezioa 15 euro izango da. Guztira 35 ostiralean elkartuko dira. Izena xake txokoa eman behar da.

### Ikastaroak Ikastolan

Xake ikastaroei dagokionez, abendua arte izango dira. Udalak LH1 eta LH2ko ikasleentzat antolatu ditu. Klaseak ikastolan izango dira astean behin, 17:15etik 18:15era, astelehen, astearte edo asteazkenetan. Prezioa 15 eurokoa izango da.

LH3tik aurrerakoentzat Ikastolak antolatuko ditu, doan, Eskola

Kirola programaren baitan. Klaseak Ikastolan izango dira, astean behin, 13:50etik 14:50era astearte, asteazken, ostegun edo ostiralean. Ikastaroetarako izena eman nahi dutenek xake txokora joan behar dute, hilaren 11n edo 18an. Bestalde, klaseak hilaren 28an hasiko dira. Ikasle berriek lehen bi asteetan probatzeko aukera izango dute.

### Xakea aisialdian

Xakean aritzeko beste aukera bat ere izango da Anoetan. LH1etik aurrerakoentzat, lau asteazkenetan bilduko dira: gaur bertan eta hilaren 16, 23 eta 30ean. 17:30etik 19:00etara udaletxeko arkupeetan elkartuko dira. Antolatzaileek parte-hartzaile bakoitzari bere tableroa eta fitxak bertara eramatea animatzen diete.

## Hutsunea Betez taldeak hainbat jarduera antolatu ditu

**Villabona** » Lehenengo ikastaroa areto dantzena izango da; hilaren 30ean hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du.

### ERREDAKZIOA

Ikasturte honetarako hainbat jarduera antolatu ditu Hutsunea Betez Villabonako emakumeen taldeak. Lehenengo ikastaroa areto dantzena izango da. Hilaren 30ean hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du ikastaroak eta horretara

rako aukeratu duten eguna asteazkenena da.

Horretaz gain, hainbat tailer aurreikusten dituzte, guztiz zehaztuta ez daudenak. Garapen pertsonaleko tailerra, esaterako, proiektuan dago eta profesionalak posible dutenean egingo da. Pelbisa indartzeko tailerra ere profesionalak posible dutenean zehaztuko da. Biodantza tailerra, aurrekoak bezala, profesionalak noiz ahal dute zehaztuko da. Arnasketa eta erlaxazio tailerrak hilean behin egingo dira eta aukeraturako eguna igandea da.

Ikastaro eta tailerrez gain, ekitaldiak antolatuko dituzte azaroaren 25ean, Emakumeenganako Tratu Txarren Aurkako Nazioarteko Egunean, eta martxoaren 8an, Emakume Langilearen Egunean. Bestalde, ikasturte amaierako irteera kulturala ere antolatuko dute, baina eguna eta lekua aurrerago erabakiko dute. Noizean behin ere mendi irteera kulturalak egingo dituzte.

Informazio gehiago nahi duenak asteartean 17:00etatik 17:30era udaletxeko balioanitzeko gelara jo behar du.



Atzo goizean, Andoni Iturzaeta zinegotziak eta Irene Larraza kultur teknikariak aurkeztu zuten udazkeneko egitaraua; ikuskizunen artean izango da Papiro-flexiakoena. E. EZEIZA/HITZA

## Euskal ekoizpenak izango dira nagusi udazkeneko kultur egitarauan

**Kultura** » Atzo aurkeztu zituzten kultura sailekoek datozen hilabeteetako ekitaldiak; tartean izango da Topic-en irekiera.

### ERREDAKZIOA

Kultur ekitaldi gosez daudenak asetzeko moduko egitaraua presatu dute Tolosan, iristear den urtaro honetarako. Izan ere, udazkenean sartzeko oraindik egun batzuk falta baldin badira ere, jada dena prest dute dena, urte amaierarra artekoak egiteko.

Udalak ez ezik, herriko eragileek eta taldeek hartzen dute parte ekitaldiak eta jarduerak antolatzeke garaian. Atzo, hauen guztien berri eman zuten Andoni Iturzaeta zinegotziak eta Irene Larraza kultur teknikariak.

Ohiturari eta orain arteko irizpideei jarraituz, eskaintza orekatu bat prestatzen saiatu dira kultura sailekoak, hala arlo ezberdinetako artistak ekarriaraziko dituzte Tolosara. Bestalde, duela hilabete batzuetatik martxan dauden ekimenekin ere jarraituko dute. Esaterako, zineko bonuen salmentarekin, Aranburuko erakusketekin, eta kultur ekitaldien berri ematen duten eskuorriak banatzearekin.

Mundua Tolosan zikloaren baitan berriz, Juan Mari Beltran eta Kukui dantza taldearen emanaldi berriaren estreinaldia izango dira Leidor antzokia, azaroaren 6an. Aurtun, liburu eta disko berri bat prestatu ditu Beltranek, txalapar-

taren historiaren ingurukoak. Lan hau eszenatikietara ere eramatea erabaki du musikariak, eta horretarako Kukui dantza taldearen eta Mireia Gabilondoren laguntza ditu.

Atzoko aurkezpenean azaldu zuten bezala, udazkeneko egitaraua gaitetik begiratu gero, euskal ekoizpenak dira nagusi. Irene Larrazaren hitzetan, hau ez da nahita egindako gauza bat izan, baina gustura daude, emaitzare-

kin, eta euskal lanei horrelako lekua ematearekin.

Azaroan hiru dantza emanaldi oso ezberdin ikusteko aukera izango da Tolosan. Alde batetik, aipatutakoak, hau da, Juan Mari Beltran eta Kukui dantza taldearena. Bestetik, Papiro-flexia taldekoak hip hop erritmoak ekarriko dituzte Leidor antzokira. Ekoizpen digitalak eszenaratzen dituen multimedia taldea da hau, beraien lehen lanaren ondoren, ikuskizun berria

aurkezten dute, dantza garaikidea (hip-hop) eta gaur egungo joerak dituen ikus-entzuzkoen nahasketa. Papiroflexia gizakien prozesu sortzailearekin metaforikoki alderatzea dute helburu. Azkenik, Lur Sagar -en emanaldiaz gozatzeko aukera ere izango da.

### Topic-en irekiera

Ezbairik gabe, ikusmin handiena sortuko duen udazkeneko ekitaldietako bat, Topic zentruaren ire-

kiera izango da. Aurreikuspenen arabera, azaroaren 27an zabalduko dituzte Tolosako Txotxongiloen Zentruak. Egun bat beranduago emango zaio hasiera berriz, urteroko Titirijai jaialdiari. Aurtengoa 27.a izango da.

Zentru honek hainbat ekarpen egingo dizkio hiririari, eta horietako bat da, tamainaertaineko antzokia. Orain arte, antzerki, dantza eta musika emanaldi gehienak Leidorren aurkeztu dira, baina hementik aurrera, beste eszenatoki bat gehiago izango da. Hori dela eta, bi ekitaldi hor aurkeztea erabaki dute. Lehendabizikoa antzerki bat, *Aitarekin bidaiari* izeneko, eta bigarrena, kontzertu bat, Iñaki Salvadorrena hain zuzen ere.

### » UDAZKENEKO KULTUR EGITARAUA

#### Irraila

■ **Peio eta Pantxoia.** Hilaren 11n, 40 urtez -gurekin kantuz lana zuzenean grabatuko dute Leidor antzokian. 22:00etan hasiko da kontzertua.

■ **Martxaundi.** Galtzaundik antolatuta, orain gutxi, eskualdeko taldeen eskutik grabatutako diskoa aurkeztuko dute zuzenean, 23:00etan, hilaren 18an.

■ **Garagardo azoka.** Irailaren 17tik 20ra izango da.

#### Urria

■ **Kultura gorraen jardunaldiak.** Urtero bezala, hainbat ekitaldi izango dira urriaren 9 eta 10ean, Gaintitzen elkarteak antolatuta.

■ **Cocidito madrileño II.** Antzezlarina urriaren 17an aurkeztuko dute Glu Glu taldekoak, 20:30ean.

■ **'Nazioarteko Abesbatza Jaialdia'.** Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta, urriaren 29an hasiko da jaialdia.

■ **Tolosako Goxua.** Urriaren 31n izango da azoka berezia.

#### Azaroa

■ **Juan Mari Beltran eta Kukui dantza taldea.** Mundua Tolosan zikloaren baitan aurkeztuko dute emanaldi hau azaroaren 6an. Leidor antzokian izango da saioa, 20:30ean.

■ **Papiro-flexia.** Hip hop dantza ikuskizun honetaz gozatzeko aukera izango da azaroaren 13an, Leidorren, 20:30etik aurrera.

■ **Disko festa.** Topagunearen eskutik, Beotibar pilotalekuan izango da, azaroaren 14an.

■ **Tolosako Babarrunaren Astea.** Ekitaldi ugari izango dira jaki preziazitu honen inguruan, azaroaren 19tik 22ra bitartean.

■ **Lur sagar.** Hilabeteko hirugarren dantza ikuskizuna izango da hau. Leidorren izango da, azaroaren 20an, 20:30ean.

■ **Liburu azoka.** Urtero legez, San

Frantzisko pasealekuan izango da, azaroaren 20tik 29ra.

■ **Santa Zeziliako kontzertua.** Tolosako Musika Bandak eskainiko du emanaldi, azaroaren 22an.

■ **Topic zentruaren inaugurazioa.** Aurreikuspenen arabera, azaroaren 27an irekiko dituzte «Tolosako txotxongiloen etxeak».

#### Abendua

■ **Titirijai txotxongilo jaialdia.** Azaroaren 28tik aurrera, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta ospatuko da jaialdia.

■ **Tolosako Gourmet: txuletaren festa.** Abenduaren 4tik 8ra erretegi erraldoi bilakatuko da Zerkautia.

■ **Iñaki Salvador trio.** Mikel Laboari omenaldia egingo diote bertan. Kontzertua Topic-en izango da, abenduaren 18an, 20:30ean.

■ **Gabonetako azoka berezia.** Urteroko azken azoka berezia abenduaren 19an izango da.

■ **Tolosako Orfeoia.** Eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 23an, Leidor antzokian, 20:30ean.

#### Aranburu jauregia

■ **'Liburutegia gudan'.** Urriaren 3ra arte ikusgai da erakusketa dibulgatibo hau.

■ **Iñigo Altolagirre.** Irailaren 11tik azaroaren 14ra bitartean artista nafarraren lanak jarriko dituzte Aranburu Jauregian.

■ **'Kontuan hartu gabeko krisiak: kontuan hartu gabeko bizitzak'.** Medicus Mundi elkartearen eskutik, erakusketa dibulgatiboa izango da azaroaren 6tik 14ra bitartean.

■ **Titirijai, 'Quebec-era leihoa'.** Txotxongilo jaialdiarekin batera azaroaren 28tik abenduaren 8ra ikusgai izango da erakusketa.

# Galtzaundik eta Udalak prest dute II. Ibarra Galtzakomik Lehiaketa

**Ibarra** » II. Ibarra Galtzakomik 2009 Komiki Lehiaketara aurkezteko epea azaroaren 10ean bukatzen da.

## ERREDAKZIOA

Pasa den urteko arrakasta ikusita, Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarrrako Udalaren laguntzarekin, II. Ibarra Galtzakomik 2009 Komiki Lehiaketa antolatu du. Atzo Ibarrrako Udalean, Galtzaundiko Angela Alamok, Ibarrrako zinegotzi Itziar Jauregik eta Ibarrrako teknikari Tomas Ugaldebek aurkeztu zituzten lehiaketaren helburu eta xehetasunak.

## Helburu eta oinarriak

Atzo goizean eginko aurkezpenen azaldu zutenaren arabera, literaturaren trebatzeaz gain, idazmena eta sormena lantzea dira helburuen artean daudenak. Bestalde, gazteengan gauza artistikoetarako kontzientzia eta sugarra piztu nahi dituzte komikien lehiaketa honekin. Euskararen erabilera bultzatzea ere helburu horien artean dago eta baita gazte eta heldunen arteko ekitaldiak sustatzea ere.

1997. urtetik, Joseba Antxustegiartek, hamabostean behin hutsik egin gabe egin du bere komikia *Galtzaundi* aldizkarirako. Borondatez egindako lana eskertu eta aitortzeko komiki erakusketa egin zuten Tolosa, Ibarra eta Alegian. Erakusketari egindako erantzun onaren ostean etorri zen lehiaketa egitearen ideia. Lehiaketa hau prestatzeko ere Joseba Antxustegiartek erantzun laguntza izan dute antolatzaileek.

Joan den urtean egin zen lehen aldiz lehiaketa eta 80 lan bildu ziren Galtzaundi Euskara Taldean. Lehiaketaren arrakasta kontuan izanda eta parte-hartzaileen interesa ikusirik, Ibarrrako Udalaren laguntzarekin bigarren urtez jarraian Galtzaundik Komiki lehiaketa prestatu du. Lanak irailaren 10etik azaroaren 10era bitarte aurkeztu ahal izango dira Galtzaundiren egoitzan.



Atzo Ibarrrako Udalean egin zuten II. Ibarra Galtzakomik 2009 Lehiaketaren aurkezpena. E. MAIZ

## » DATUAK

### Parte hartzeko baldintzak

■ **Lana.** Zuri-beltzean edo koloretan, A4 neurrian eta formatu bertikalean, lau orri izango ditu gehienez eta euskaraz izango dira. Lanak bakarka aurkeztu beharko dira.

■ **Non aurkeztu.** Galtzaundi Euskara Taldea. «Ibarra Galtzakomik» Komiki Lehiaketa. Nafarroa etorbidia 6, Behea. 20.400 Tolosa helbidean.

■ **Nola.** Bi gutun-azaletan banatuko dira. Lana, izenburu batekin (izenik gabe) joango da eta gutun-azal honen barruan joango den bestean, izen-abizenak, telefono zenbakia, lanbidea, adina eta helbidea sartuko dira.

Hiru kategori izango dira aurkeztutako lanen artean: 12 urtetik behera, 12-18 urte bitartean eta 18 urtetik gora. Eta lanak bakarka aurkeztu beharko dira.

Gaia, librea izango da baina ez da onartuko eduki bortitz, sexista edo arrazista duen komikirik. Bestetik, pertsonaia guztiek jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute, hau da, autoreak berak sortu-

■ **Noiz.** Irailaren 10etik, azaroaren 10a bitartean.

### Hiru kategorია eta sariak

■ **12 urtetik behera.** Lehenengoa: komiki bilduma eta argitalpena paperean eta webgunean.

Bigarrena: marrazketarako materiala eta argitalpena paperean.

■ **12-18 urte bitarte.** Lehenengoa: 400 euro eta argitalpena paperean eta webgunean.

Bigarrena: 200 euro eta argitalpena paperean eta webgunean.

■ **18 urtetik gora.** Lehenengoa: 600 euro eta argitalpena paperean eta webgunean.

Bigarrena: 400 euro eta argitalpena paperean eta webgunean.

### Izen handiko epaimahaia

Epaimahaiaren artean oso jende ezaguna aurkitzen da. Joseba Antxustegiartek *Galtzaundiko* komikilaria, Juanba Berasategi marrazki bizi dunen egilea, Asisko Urmeneta Argizko komikilaria, Iñaki

Martiarena *Mattin Berri*ko komikigilea, Frantzisko Jabier *Etaio Garako* komikilaria, Iñaki Epelde Tolosako margolaria, Jose Luis Longaron Tolosako margolaria eta azkenik Kike Amonarri aurkeztu dira lan guztien artean oneneak aukeratu beharko dituztenak.

Epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek ez badaukate eskatutako kalitatea, sariak eman gabe utzi ahal izango dituzte. Saritutako lanekin, aldizkari bat kaleratuko dute koloretan eta ondoren Tolosaldean banatuko dute.

### Erakusketa

Saritutako suertatzen diren lanekin eta epaimahaiak aukeraturiko dituen beste lan batzuekin erakusketa bat antolatuko dute urtarrilean Ibarrrako Kultur Etxean.

Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 943655004 telefonoan, [kutura@galtzaundi.com](mailto:kutura@galtzaundi.com) helbidean edota [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) webgunean eskura daiteke. Baita Ibarrrako Udaleko euskara zerbitzuan 943 673827 telefonora deituz edota [euskara@ibarrakoudala.net](mailto:euskara@ibarrakoudala.net) helbidera idatziz.

## Laburrak

### Usabalgo ikastaroetan izen-emateak zabalik

**TOLOSA** • Usabal kiroldagiko bazkideei bertako ikastaroetan izena emateko epea bihar bukatzen zaie. Bazkide ez direnek berriz, irailaren 10etik 16ra bitarte izango dute aukera eskaintzen diren ikastaroetan apuntatzeko. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero [www.usabalkiroldegia.com](http://www.usabalkiroldegia.com) helbidean eskura daiteke.

### Spinning eta Tai-Chi ikastaroak Belabietan

**IBARRA** • Ibarrrako Belabietan kiroldegian Spinning eta Tai-Chi ikastaroak antolatu dituzte. Spinning klaseak astelehen eta asteazkenean 19:00etan izango dira eta astearte eta ostegunetan berriz, 18:30etik 19:30era edo 20:30era. Tai-Chi egiteko aukera astelehen eta asteazkenean izango da 20:00etan hasita.

### Sendabelarren ikastaroan izena emateko aukera

**AMEZKETA** • Aulas Kutxa ekimenaren barruan, Ametzetako Udalak sendabelarren inguruko ikastaroa antolatu du. 24 ordu izango dituen ikastaroa, urriaren 1ean hasi eta abenduraen 17an bukatuko litzateke. Ikastaroaren kostua 80 eurokoa da eta ostegunetan 15:30etik 17:30era izango litzateke Zazpi Iturri Elkartean. Izena emateko epea irailaren 15ean bukatzen da eta internet bidez [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) helbidean edota 902 540040 telefono zenbakira goizeko 8:00etatik 14:00ak bitarte deituta eman daiteke.

### Asteroko azokan postua eskatzeko epea luzatu da

**IBARRA** • Ibarrrako Udalak irailaren 24etik aurrera asteroko azoka definitiboki martxan jarri nahi du. Hasi batean abuztuaren 31n bukatzen bazen ere eskaera egiteko epea, opor egunekin bat egin duela kontuan hartuta irailaren 14a bitarte luzatu dute epea. Asteroko azokan postua jarri nahi izanez gero, eskaera udaletxean egin behar da. Azoka ostegunero izango da 08:00etatik 14:30era Emeterio Arrese plazan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Inde Kitxen taldea izango da Garagardo Festan ariko denetako bat. E. EZBEZA

## XI. Garagardo Festa hilaren 17tik 20ra izango da Zerkausian

**Tolosa** » Aurtengoan 27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da; musika eta kirola ere izango dira festaren baitan.

### ERREDAKZIOA

Astebeteren buruan Zerkausia garagardotegi erraldoian bilakatuko da, datorren ostegunetik igandera arte, hau da, hilaren 17tik 20ra Tolosako XI. Garagardo Festa ospatuko baita bertan.

Garagardo mota ugari izango dira aukeran, 27 hain zuzen ere, «inoiz baino gehiago» antolatzaileek azaldu bezala. Eta, noski edatekoaz gain, jatekoa ere eskainiko dute, ohi bezala.

### Ekintza ugari

Garagardo Festa ostegun iluntzean hasiko da, eta igandera bitarte bazkariak eta afariak emango dituzte, baina horretaz gain, beste hainbat ekintzez ere gozatzeko aukera izango da. Ostegunean,

esaterako, Tolosako Musika Banda ariko da, eta ostiralean eere musika izango da, Martxaundi V proiektuaren aurkezpena, hain zuzen ere. Nekro, Zesuma, Inde Kitxen, Kantaflo, Kraen, Potentor, Laket, Inside, Gargantas Desgarradas eta Caligula taldeak ariko dira.

Kirolak ere izango du tartea Garagardo Festaren baitan antolatutako egitarauan. Larunbatean, hilaren 19an, Bizikleta Eguna izango da Triangulon ekintza ugariarekin, eta igandean, hilaren 20an, Xake elkarteak antolatuta, xake erraldoiean jolastu ahalko da.

Ederki edan eta jatearekin batera, beraz, aspertzeko betarik ez da izango Zerkausiaren inguruan egingo duten festan. Aurten Tolosako Judo Klubak, Tolosa CF nesken txirindulari taldeak eta Tolosaldea IKT arduratu dira jai antolatzaileak. Egun horietan bildutako dirua, hiru taldeen artean banatuko dute, eta urtean zehar burutzen dituzten jardueretarako baliatuko dute.

## Laburrak

### Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera

**TOLOSA** » Aitzol Udal Euskaltegian matrikula egiteko aukera dago hilaren 18ra arte. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bitarte joan daiteke bertara izena ematera. 943 65 10 06 edota 943 65 23 43 zenbakietara ere hots egin daiteke informazioa eskatzeko.

### Helduen Hezkuntza Eskolan matrikula zabalik

**TOLOSA** » Hilaren 1etik aurrera zabalik dago Helduen Hezkuntza Eskolan (Igaralde kalea, 23) matrikula egiteko epea. 18 urtetik gorakoentzat doako ikasketa eskaintza dute bertan. 943 67 26 60 zenbakian eskatu daiteke informazio gehiago.

### Peñascal fundazioan lau ikastaro aukeran

**TOLOSA** » Ikasturte berrirako lau ikastaro eskainiko dituzte Peñascal fundazioan: Soldadura, mekanizatua (torno, fresadora, taladro edo CNC), ostalaritza eta arotza. 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako dira ikastaroak, eta bakoitzak 2.000 ordu inguruko iraupena du, horietatik, 500 praktikak izango dira. Izena emateko fundazioa (Usabal industriagunean) edo 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara deitu beharko da.

### Imitaziozko bitxien tailerra antolatu dute

**LEABURU** » Imitaziozko bitxien tailerra jarriko dute abian Leaburun, Kutxak antolatu eta Kultur Etxeak lagunduta. Hilaren 15era arte dago izena emateko epea, eta horretarako, 16 urte eduki, eta Kutxako bezero izatea beharrezkoa da. 902 54 00 40ra deitu beharko da izena emateko, edo bestela [www.kutxasocial.com-eraj.o](http://www.kutxasocial.com-eraj.o).

### Sendabelarren ikastaroan izena emateko aukera

**BELAUNTZA** » Sendabelarren tailerra antolatu du Kutxak Belauntzan, Kultur Etxearen laguntzarekin. Ikastaro honetan izena emateko aukera dago hilaren 15a baino lehen. 16 urte izatea eta Kutxan konu bat izatea dira izena emateko baldintzak. 902 54 00 40 telefono zenbakira deitu beharko da izena emateko, edo bestela [www.kutxasocial.com](http://www.kutxasocial.com) helbidera jo.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuek deitu 679 81 90 42 telefono zenbakira.



## Realaren urteurrenarekin bat eginez

**KIROLA** » Realak herenegun 100 urte bete zituela-eta, Gipuzkoako udaltxe askotan urteurrenarekin batera jarri zuten zintzilik. Hala egin zuten Tolosan 13:00a puntuan zenean, eta baita eskualdeko beste hainbat udaltxetan ere, ekimenarekin bat eginez. Bandera jartzearekin batera, txupinazoa ere bota zuten. HITZA

## Ibarra areto futbol taldeak maila ona erakutsi du denboraldi-aurrean

**Kirola** » Hilaren 19an hasiko da denboraldi berriarekin; jubenilen taldeak ere ez du fitxaketarik egin.

### ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldeak hilaren 19an ekingo dio denboraldi berriari. Denboraldi «zaila» izango dela aurreikusi dute taldeko ordezkariak, eta «taldea indartzea eta iaizkoa baino maila hobea ematea» jarri dute helburu bezala.

Denboraldia hastear da Ibarra-koentzat, baina, hala ere, abuztuaren hasierarako hasiak ziren denboraldi berrirako prestatzen. Hala, denboraldi-aurreko hainbat norgegiagoka izan dituzte, eta guztietan ere emaitza baikorrak erdietsi dituzte «bai markagailuari dagoionez, bai eta esperotako mailari dagokionean ere; oso partida ore-

katuak izan ditugu». Hain zuzen ere, gaur izango dute denboraldi-aurreko azken partida ligari ekin aurretik.

### Gazteen aldeko apustua

Aurrendenboraldian jokalarri berriak taldeen sartzeko esperantza ere bazuen taldeko ordezkariak aipatu bezala. David Prados eta Ruben Etxart baja izango dira aurten, eta horien hutsunea betetzeko kanpoan begiratzeko hasiak ziren jokalarrien bila. Dena den, «diru kantitate handiak eskatzen dituztela ikusirik» taldeko gazteen alde egi- tea erabaki du taldeak, «jakinik kategoria honek maila altua exijitzen duela».

Beraz, Txubelek iaz jarraitu zuen dinamikari eutsi nahi diote, eta jokalarri gazteei emango diete jokatzeoko aukera; «maila ona erakusten dute, oso sartuta, ohituta baitaude kategoria honetan, beraz, jubenil mailako jokalarriren bat ziur maila nagusikoekin ariko dela aurten ere», azaldu dute.

### Jubenil mailan atezain berria

Jubenil mailako taldeak ere ekin dio denboraldi berriari, eta honek fitxaketarik gabe egingo du aurrera. Soilik atezaina izango da aldatuko den bakarra. Ion Artolak jarraituko du euren entrenatzaile bezala lanean.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

### @ HITZA Argazki Lehiaketa.

HITZAK bere lehiaketara hel- tzen diren argazkiak argitaratuko ditu, eta gure webgunean ikusgai daude orain arte heldu diren guz- tiak. Animatu eta hartu parte zeuk ere. Sari interesgarri eta potoloak daude aukeran. Hilaren 17ra arte duzu horretarako aukera.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**E Elkarrizketa**

**JON CASARES** » Aurrera Perra Elkarteko kidea



A. IMAZ

## «Penagarria da horrelako gune berde bat galtzea»

**Leitza** » Asteburuan ospatu behar zen IV. Zaldi Eguna, baina bertan behera utzi dute antolatzaileek. Erabaki honekin zerikusia du Inguruarten egiteko asmoa dagoen proiektuak.

A. IMAZ

Aurrera Perra Elkarteko kidea da Jon Casares (Donostia, 1958). Leitza 25 urte daramatza bizia egiten. Gaur egun bertan bizi da eta Leitza Zaldi Egumaren antolatzeko bat da.

**Zergatik ez duzue antolatuko Zaldi eguna?**

Guk Zaldi Eguna Inguruarten ospatzen dugu. Bertan udaletxeok hormigoizko plataforma bat egin behar dute, uste dut 15X15ekoa, heliportu bat egiteko, hau da, helikopteroak bertan lur har dezan. Leku asko ez dago hor, baina ongi aprobetxatzen genuen Zaldi Egumean: erakustaldiak, zirkuak, egiten genituen. Plataforma horrekin ordea antolatzeko oso gaizki gelditzen zaigu. Aurrera begirako ekimena da Zaldi Eguna, eta jarraipena ezinezkoa izango litzateke. Hori alde batetik eta bestetik, gune berde bezala, merkeegi galdu dela iruditzen zait.

**Oraindik ez dira lanak hasi, ezta?**

Ez, baina duela hilabete batzuk masa bota aurreko harri txindorra eraman zuten. Orduan konturatu ginen euren asmoak, kasualitatez. Harri txindorra ikusi genuen eta udaletxeko langileei galdetu genien. Hauek oinarria bihar bota behar zutela esan ziguten, gero masarekin hasteko. Orduan herriaren pankarta batzuk jarri geni-

tuen, *Inguruarte bizirik* lelopean. Pankartak jarri ondoren, udaletxetik deitu ziguten, eurekin bilatzeko. Aurrerako lehendakaria, suhiltzaile bat eta Perra Elkartekoak joan ginen. Heliportuaren proiektu hau baloratzen 6 hilabete egon zirela esan ziguten, eta ez zegoela beste tokirik. Suhiltzaileak proiektu interesgarria zela esan zuten, baina ez hor egin behar zenik. Gu bapatean aukera desberdinak botatzen hasi ginen; Sarriorekin hitz egitea interesgarria izango zela esan genien, eurei agian bertan egitea komenigarria izango zitzaieka, arriskuei aurre egiteko planaren parte bezala. Areso eta Leitzaeren artean erdibana egiteko aukera aztertu al zuten ere esan genien, edota beste hainbat ideia. Nahiko jarrera ezkorra zuten beraiek, baina Sarriorekin hitz egin gogoz zutela esan ziguten. Geroberri, Zaldi Eguna amaitzean Inguruarten egin egin behar zutela enteratu ginen. Jon Arangoa zinegotziari deitu nion orduan eta ziur esan ez zidan arren, baietz bezala.

**Helikopteroarekin osasun zerbitzu zabalagoa eskaintzeko asmoa omen dago.**

Errespetu guztia diot zerbitzu horri eta kontu horiekin ez da jolasu behar. Baina denborak esango du heliportu hori benetan zertarako erabiltzen duen Nafarroako Gobernua. Baina hori ez da kontua, egin behar baldin bada egin dadila baina gune berde bat txikitu behar al duzu horretarako? Ez al dago beste aukerarik? 6 hilabete aritu omen dira aztertzen, eta 6 minutu-tan Sarrioren ideia bota genuen bileran. Hori ez omen zuten aztertu esan ziguten. Horrek ere zer esana ematen dizu, ezta? Gero ezezkoa

esan omen dute. Hori ere herriarekiko jarrera itsusia iruditzen zait. **Zaldi Eguna itzulita, lanak hasi ez direnez, antolatzeko aukera aurten behintzat bazegoen.**

Zaldi Egumaren data errespetatuko zela esan ziguten, udaletxearen hitza genuen. Baina Zaldi Eguna bukatu eta han egingo zela enteratu ginenean, *bajona* sartu zitzaigun. Leku hori asko estimatzen dut eta jende gehiagok ere bai. Eta normala den bezala *bajona* sartu zitzaigun. Zaldi Eguna antolatzeak lan asko eskatzen du, herriarentzat egiten duzu eta aurrera begira jarraipen bat izateko asmoarekin. Baina horrelako gauzekin azkenean gogokoak joan egiten dira. Herriar asko zegoen prest laguntzeko, baina berez lana egitea kosta egiten baldin bada, pentsa oztokoak jarriz gero. Niretzat ez da nahikoa lan egin, gune berde bat izorratu baina lehenago buruari buelta gehiago eman behar zaizkio.

**Ez al dago Leitza Zaldi Eguna egiteko beste lekurik?**

Inondik ere ez. Leku horrek xarma berezia du gainera. Kanpotik etortzen den jendea harrituta gelditzen da ingurunearekin. Penagarria da horrela galtzea.

**Geroztik hitz egin al duzue Udalarrekin?**

Jon Arangoa zinegotziarekin hitz egin neun baina ezer argi ez. Ez dute nahiko polemikarik kontu honekin. Informazio gutxi izan dela argi gelditu da. Pestetan banatzen den aldizkarian ere ez da kontu honen inguruko ezer aipatzen. Bertan udaletxeak egindako obrak agertzen dira, egin duzuna azaltzen komenigarria delako. Baina honen inguruan ez da ezertxo ere aipatzen.



lako finalistak Amazabal pilotalekuan. HITZA

## Leitza V. Pilota Txapelketa finalera begira jarri da

**Pilota** » Eskuz binakako txapelketaren finalak hilaren 13an, igandean, jokatu dira Amazabalen, 10:00etatik aurrera.

A. IMAZ

Leitza V. Txapelketaren finalerdiak jokatu ziren iragan asteburuan. 5 maila desberdinetako finalak irailaren 13an, igandean, jokatu dira Amazabal pilotalekuan, 10:00etatik aurrera.

Finalerdiak dagokienez, ondorengo emaitzak lortu zituzten pilotariek iragan asteburuan.

**Ostiraleko 3 partidak**

Kadete mailan Xabier Jaunarenak eta Jakak 22-18 irabazi zuten Juaristi-Gabilondoren aurka. Ondoren Jubenilek jokatu zuten eta Urbietia-Lukinek 15-22 galdu zuten Ansotegi-Iturriagaren aurka. Iragan ostiraleko azken partida Nagusien mailakoa izan zen. Bertan, Onsalo-Iriarte izan ziren garaileak, Mendizabal-Iparagarreri 22-16 irabazi ostean.

**Larunbatean 4 partida**

Finalerdiak bigarren jardunaldia iragan larunbatean jokatu zen eta lau partida ikusteko aukera

egon zen Amazabalen. Alebinetan Barriola-Bakaikoak 18-11 irabazi zuten lehen partida, Peña-Eskuderoren aurka. Maila berean, Lezea-Arandiak galdu egin zuten Egiguren-Petiteren aurka 18-11ko emaitzarekin.

Jardunaldiko azken bi partidak infantilek jokatu zituzten eta Agirre-Iruretagoienak 18-14 irabazi zuten Olano-Murgaren aurka. Ondoren Telletxea-Irribarriak gauza bera egin zuten Untxalogoñirekin, 18-11ko emaitzarekin.

**Igandeko 3 partidak**

Azken finalerdiak igandean ospatu ziren Leitza. Kadeteetan Zestua-Berazak finalerako txartela lortu zuten 22-10 irabazi ostean, Aldaregia-Apeztegiaren aurka.

Jubeniletan Dorronsoro-Pazosek gauza bera egin zuten, Arrieta-Lanari 22-17 galdu ondoren.

Finalerdiak jokatu zuten eta hemen finalerako txartela Idote-Uzkudun bikoteak lortu zuten, Sagastibeltza-Bengoetxea 18an utzi ostean.

Maila bakoitzeko irabazleak final hilaren 13an, igandean, jokatu du lehen aipatu bezala Leitza Amazabal pilotalekuan. Lehen partida 10:00etan hasiko da.

## Laburrak

**Kantu Jira Aurrera Elkartean etzi 19:00etan**

**LEITZA** • Ikasturte berria martxan jarri denez, hileroko legean Kantu Jiran elkartzeko aukera berria egongo da etzi, hilaren 11n. Aurrera Elkartean 19:00etan bilduko dira hainbat herritar, musikarien laguntzaz euskal kantak abesteko asmoz. Kantu Jira egitasmoaren baitan Aurreran elkartzeko direnek herriar guztiei dei egin diete, abestea gustuko duenarentzat atek zabaltzeko dituztela aipatuz.

**Igerilekuko aulki eta hamakak jasotzeko oharra**

**LEITZA** • Uda amaitzean aurkitzen den honetan, Leitza igerilekuak atek itxiko ditu hilaren 13an, igandean. Arduradunek azaldu duteenez, «aurten jende ugari ibili da igerilekuan, giroak ere lagundu baitu». Ohar bat ere zabaldu nahi izan dute, izan ere, hainbat herritarrek aulkiak eta hamakak bertan utzi dituzte eta hauek jasotzeko aukera zabalik edukiko dute igandera, 11:00etatik 20:00etara.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 032. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Ikastaroak

■ **Tolosa.** Udaberri Dantzari Taldeak haurrentzako euskal dantza ikastaroak antolatu ditu hilaren 18tik aurrera, ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan. Izen-ematea, egoitzan (Kondeko Aldapa 20, behe) hilaren 9tik 11ra, 17:00etatik 20:00etara.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek 13rako mendi irteera bat antolatu Orbaran hasi eta Berrendi (1.354 m), Goñiburu (1.464 m), Idorrokia (1.492 m), Abodi (1.533 m) mendiak igoz. Irteera, Santa Klaratik 07:30ean. Izen-ematea: 943 652789 edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com).

### Kirola

■ **Tolosa.** *Proba ezazu zuk zerorrek* lelopean, Udalak emakumeei zuzendutako lasterketa entrenamendu ikastaroa antolatu du iaz bezala, doan. Informazioa eta izen-ematea, Usabal kiroldegian.

### Irteerak

■ **Tolosa.** La Albercara (Salamanca) irteera antolatu du Harizpe jubilatu elkarteak irailaren 13tik 19ra. Izen-ematea, elkartean bertan egin daiteke.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK


■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lehiaketan parte hartzeko aukera dago oraindik! Irabazleak asteburuko egonaldia irabaziko du; bigarrenentzat Karlis argazki dendaren erreportajea izango da; hirugarrenak otordua eramango du.

# Udako bizipenen oroitzapenak


**ALHAMBRA (GRANADA)** • Andaluzia ere leku aukerentakoen artean dago, uda igarotzeko. Halaxe egin du Amaiak eta hau kontatu digu: «aurtengoan Abuztuan Alhambra (Granada) ateratako argazkia bidaltzen dizuet, polita benetan, nahiz eta jende asko eta bero asko pasa, merezi du benetan bisitatu». AMAIA JAUREGI



**'PLASTIKOZKO IRLA' (ECUADOR)** • Itsasoa zeharkatu eta Ecuador aldera egin du bidaia Iratik aurtengo udan. Argazki eder honekin batera hauxe azaldu digu: «Pastikozko isla- iluntzeko kolore biziak lurreen zabalzen dira irla honetan hondarretan dagoen zakar eta plastiko pilatan isladaturik, ta hala gertzen da tamalez Ecuadorko kostako hainbat lekutan». (Ecuador ipar ekialdea- Laguna Caudal). IRATI EZEIZA KARRERA

egunean 20 zentimoren truke, ZUREA DA HITZA

**ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!**



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak  
2 lagunentzat bidaia

ez galdu aukera

**902-82 02 01**


(Astegunetan 08:30-20:30 / Lanbatetan: 09:00-13:00)

**www.tolosaldeko-hitza.info**

eraman/bidali zure datuak:  
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31680 Leitza

Izen-abizenak, helbidea, herria, PK, telefonoa, p.elektronikoa eta kontu zenbakia

Deiak eta datuak jasotzeko azken eguna: urriak 30  
Sariidunaren izena egunkariari: azaroak 6



bidali opor  
hauetako  
argazkiak!

**NORA BIDALI?**

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
helbide elektronikora edo HITZAren  
Tolosako edo Leitzaoko egoitzetara



HITZA udako argazki lehiaketa



# Zizurkilgo jaiak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



## ATSEDENIK GABEKO BOST EGUN

**ZIZURKIL** INDARREZ GAINEZKA ANTOLATU DITUZTE AURTENGO JAIK. ATSEDENALDIK EZ DU LEKURIK EGITARAUAREN BAITAN, EZ DIRA ALFERRIK BOST EGUN «BAKARRIK»: ZATOZ ETA GOZATU!

# ORAINDIK FESTA GOSE

**Egitaraua** » Gaur hasi eta igandera arte musika, haurrentzako eta jubilatuentzako ekitaldiak, ikuskizunak... izango dituzte aukeran.



**Zizurkilgo Udalak**  
**Jai zoriontsuak opa dizkizue!**  
**Parrandan ere euskara ahoan!**

Egunkari hau esku artean izatera-ko, batzuk parrandaz eta jai giroaz gozatzen izango dira. Gainontze-koentzat, hona hemen zehazturik egunez egun izango diren ekitaldiak:

## Irailak 9, gaur

- **10:00etan.** XIBA: Haurrentzako Herri Kirolak Joxe Arregi plazan.
- **11:30ean.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **19:00etan.** Zizurkilgo II. Kros mistoa. Neska eta mutilez osatutako bikoteentzat.
- **20:30ean.** Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena. Atxulondo kultur etxetik, Latzakarrapauta blusaren eskutik.
- **Ondoren.** Kalejira Trikitixaz alaiturik.
- **21:30ean.** Herri afaria Joxe Arregi plazan.
- **00:30ean.** Bizarhunak taldearen kontzertua.
- **03:00etan.** Karaokea.

## Irailak 10, bihar

- **13:00etan.** Jubilatuen jokoak: toka eta igela.
- **14:00etan.** Jubilatuen bazkaria Atxulondo jatetxean.
- **17:00etan.** Pirritx eta Porrotx pailazoan *Piratak* emanaldia izango da ikusgai.
- **Ondoren.** Txokolatada eta buruhandiak.
- **20:00etan.** Kantu Kale. Herritarrek herria euskal kantuz alaituko dute. Tartean parte-hartzaileek zenbait pintxo dastatu eta barrioktea egin ondoren Kantu Kalerekin jarraituko da.


■ **23:00etan.** Laket berbena taldea.

## Irailak 11, etzi

- **10:00etatik 13:00etara.** Base-rriko produktuen merkatua Joxe Arregi plazan.
- **11:00etan.** Erromeria Jon Mari eta Xabier trikitilarien eskutik.
- **14:00etan.** Gazte bazkaria Joxe Arregi plazan.
- **Ondoren.** Gazte Jokoak.
- **18:30ean.** Manifestazioa Zizurkilgo gazteek antolatuta *Gazte bo-rrokaz AHT gelditu!* lemapean.
- **Ondoren.** Poteoa Zozongo Batu-kadarekin.
- **19:00etan.** *Breaker* dantzarien erakustaldia Aurrera Plazan.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **23:00etan.** Kontzertuak: Ze esatek, Esne Beltza eta La Pegatina taldeak. Kontzertuen tartean ekitaldia burutuko da.

## Irailak 12, larunbata

- **10:00etatik 13:00etara.** Guraso eta haurrentzat Jokolandia, Joxe Arregi plazan.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **13:00etan.** Loreontzien erakusketa eta lehiaketa.
- **14:30ean.** Herri bazkaria.
- **17:30ean.** Blusen arteko pentatloia. Koadrilek bost jokotan parte hartuko dute. Jokoetako bat Asto Karrera izango da.
- **19:00etan.** Asto Karrera.
- **Ondoren.** Mozorro Gaua: gailireka. Gaupasa.
- **00:00etan.** Trakets berbena taldea goizaldera arte.
- **06:00etan.** Gosaria Joxe Arregi plazan.



Asto karrera ere egingo dute. E. EZBIZA

■ **07:30ean.** Diana trikitixaren musikarekin.

## Irailak 13, igandea

- **10:30ean.** Sardinak eta sagardo dastaketa plazan, Urkamendi Elkartearen eskutik.
- **13:00etan.** Herri kirolak Joxe Arregi plazan. Aizkolariak: Joseba Otaegi eta Jon Rekondo. Harrija-sotzaileak: Telleria anaia.
- **16:00etan.** I. Joxe Arregi Mus Txapelketa Aurrera plazan.
- **17:00etan.** Torcidos Akrobazia ikuskizuna Estropicio taldearen eskutik.
- **Jarraian.** Zirko tailerra urmeentzat.
- **19:00etan.** Herritarrek Lantzeko zortzikoa dantzatuko dute eta Melokotoiari agurra.
- **20:00etan.** *Ostikalariak* bertsoa, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna.



## OGI-ZURi

Okindegia  
Gozotegia • Kafetegia

Ogi bereziak eta  
artisau eran eginikoak

Bulandegi bidea 1-3 • Zizurkil • 943 69 10 00



Ostirala 11 gaueko 23:00tan  
Tangoak, Tangonean taldearen eskutik

- Astelehenerik ostiralera eguneko menua 10€-tan
- Astebukaeratan menu berezia 20€-tan
- Ogitartekoak, plater konbinatuak ( "neuk egiña" )

Beibategi Baserría  
Elbarrena Diseminado, 8  
Zizurkil • Tel.: 943 69 64 80

www.belarrizjan.com  
info@belarrizjan.com



Jai  
zoriontsuak  
pasa!

- ◆ Otartekoak
- ◆ Razioak
- ◆ Plater konbinatuak

Erniobidea, 7 • ZIZURKIL • Tel.: 943 69 62 57

# Jaietan antolatu diren ekitaldiak herritarren hitzetan

**Festa Batzordea** » Ekitaldi bakoitzaren atzean zer dagoen azalduko dute jaiak antolatzen buru-belarri lanean ibili diren herritarrek.

Zizurkilgo Festa Batzordeak antolatu dituen jaiak gaur jarriko dira abian. Egitarau oparo eta zabala nola antolatu duten euren azalduko dute ondoren, egunez-egun, euren hitzetan:

## Gaur, hilak 9

«Amabirjin Eguna denez, hau da, jai eguna, goizean hasiko gara ekitaldiekin. Lehenik haurren txupinazoa botako da eta ondoren, 10:00etan, haurrentzat Xiba jokoa egongo dira.

Gero aipatu beharra dago krosari garrantzi handia ematen diogula. Aurten bigarren edizioa ospatuko da eta mistoa izango da. Bikoteka ateratzen dira gizon eta emakumeak eta karrera hasi eta amaitu batera egin behar dute. 6 kilometroko distantzia egin behar dute, herrian barruko zirkuitoan hiru buelta. Ordu batean lehenago apuntatu behar da eta dohainik da. Oso herrikoia izaten da, ez da bate-re gogorra.

Iluntzean txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena egingo dugu. Garaibatean Zizurkilgo Melokotoia omen zen festetako pertsonaia edo protagonista eta aurten berreskuratzea pentsatu dugu. Kontu hau nondik datorren ziur ez dakigu baina jendeak bere ideiak botatzeko balio izan du, pentsa, batzuk mozkorragatik izango dela ere esan dute. Melokotoiaren jaisiera baina gehiago zintzilikatu egingo dugu eta festa guztiak bertan pasako ditu.

Lehen egunean arrakasta handia izaten duena herri afaria izaten da. Urtero jende ugari elkartzen da Joxe Arregi plazan. Ondoren berriz folk irlandesa euskaraz egiten duten Bizardunak taldea eta Karakea egongo dira. Afariaren ondoren kantatzen jende asko animatzen dela esan beharra dago, ilarrek eta guzti sortzen dira».

## Bihar, hilak 10

«Eskolak hasi direnez goizez ez dugu ekitaldirik antolatu. Osteguna Jubilatuen Eguna izango da eta hauek 13:00etan jokoetan ibiliko dira. Ondoren bazkaria egingo dute Atxulondoko jatetxean. Hau beti horrela izan da.

Arratsaldean, 17:00etan, ia urtero bezala Pirritx eta Porrotx etorri-

ko dira. Zergatik? Onenak direlako. Haur eta guraso guztiak hauek nahi dituzte eta egia esan guretzat ere onenak dira, zalantzik gabe.

Gero berezitasuna Kantu Kale izango da. Hirugarren urtez egingo da baina giro bikaina egoten dela azpimarratu behar da. Udara guztian entseguak egiten dira, eskal kantu liburu bilduma oinarri hartuta. Gero festetan kalez kale ibiltzen dira eta jende ugari elkartzen da. Iaz adibidez ehundik gora irtinginen kantuan».

## Etzi, hilak 11

«Baserriko produktuen azoka antolatu dugu lehen aldiz. Ez dakit nola irtingo den. Inguruko baserrietan ibili gara baina jendea ez dago horrela jartzeko. Ostiral goiza izateak bere eragina ere badauka eta 7 edo 8 bat postu egongo dira relaespeko dugu.

Ostirala Gazte Eguna denez, hauek 14:00etan bazkaria egingo dute Joxe Arregi plazan. Ondoren jokoak eta manifestaldia antolatu dute, *Gazte borrokaz AHT gelditu!* lelopean.

Batzuk poteoan dabilzan bitartean, plazan 19:00etan Break dance erakustaldia egongo da, DJ eta guzti. Gauean berriz Ze esatek, Esne Beltza eta La Pegatina taldeen kontzertuak».

## Irailak 12, larunbata

«Goizean Jokolandia egongo da, gaztelu puzgarri eta beste traste mordo batekin batera. Iaz ekarri genituen eta haurrei ikaragarri gustatu zitzaizkien.

13:00etan loreontzien erakusketa eta lehiaketa egongo da. Aurten berreskuratu dugu ekitaldi hau eta ea nola ateratzen den.

Eguerdian urtero bezala herri bazkaria egingo dute koadrilek. Bakoitzak bere jana eramaten du eta oso potentea izaten da. Bazkariarekin lotuta pentatloia egiten da beti, hau da koadrilen artean 5 joko



desberdineko lehiaketa. Horien artean Asto Karrera egongo da. Ondoren berriz Mozorro Gauari hasiera emango zaio. Gaia librea izango da, izan ere, urterten batean gaibat jarri zen baina okerrago ateratu zen eta hobe horrela.

Berbena goizeko 06:00ak arte egoten da eta gero txokolatada gosaltezko. Normalean larunbata gaupasa eguna izaten da».

## Irailak 13, igandea

«Urkamendi Elkarteak beti bezala sardina eta sagardo dastaketa antolatu ditu eta ondoren herri kirolak egongo dira. 16:00etan berriz lehendabiziko aldiz Joxe Arregi Mus Txapelketa jokatuko da Aurterra plazan. Izena emateko mementoa egongo da aukera.

Melokotoiari eta jai egun agur esateko, 19:00etan herritarrek Lantzeko zortziko dantzatuko dute. Arratsaldean herrian barrena ibiliko dira dantzan eta azken emanaldia plazan egingo dute. Entseguak uztailean hasi ginen, asteazkeno, eta 60 lagundik gora ibili gara. Amaieran Melokotoiari su emango zaio.

Azken ekitaldi bezala Ostikalariak bertso saio berezia egongo da. Iñigo Ibarra, Julio Soto, Jon Elizetxe eta Julen Zelaietak hartzen dute parte eta gai-jartzaile lanetan Fernando Anbustegi ariko da».



Busen bazkariak eta haur jolasek arrakasta izan ohi dute Zizurkilgoan. HITZA

## NOLA FUNTZIONATZEN DU FESTA BATZORDEAK?

«Aspaldiko urtetan gainbehera zihuan Festa Batzordea. Jaietako bilera egiten ziren baina ez zegoen dinamizazio eta kultur dinamizazioak eraman zuen pisu guztia. Iaz, batzuk elkartu eta egoerari buelta eman beharra zegoela ikusi genuen. Kultur teknikariarekin bildu eta Festa Batzorde indartsu baten aldeko apustua egin beharra zegoela erabaki genuen. Bilerak irekiak izan dira eta herritarrek hartu dute parte. Udaletxeko kultur teknikaria han egoten zen baina bat gehiago bezala. Horrela funtzionatu du aurten Festa Batzordeak. Udala diru bat ematera konprometitu zen eta jaiak guk antolatu ditugu. Ez da Udal Batzorde edo horrelakorik egon eta politikoez ere ez dute parte hartzen».

Talleres  
**ARRASTOA S.L.**

Jai Zoriontsuak izan!

Ernio bidea, 25. Poligonoa 35. Pabiloia  
Posta kutxa 61  
ZIZURKIL

Tel.: 943 69 44 41  
Fax: 943 69 41 02

**GARAJE**

**EKIN**  
AUTO KONPONKETA

Ondo pasa jaiak

Elbarrena azuoa, 15. poligonoa  
Tel-Fax: 943 69 26 84  
ZIZURKIL

**CATALAN AZULEJOAK**

Portzelana • Gres  
Harri naturala  
eta imitaziozkoa

Europar ereduak  
Erakusketa handia

ASTEASU ERPEDEA, K 1200 • 628 734 223 • 687 85 83 63

BILTEGIA:  
20150 ZIZURKIL

## E Elkarrizketa

ADRIA SALAS › La Pegatina taldeko kidea



HITZA

# «Jai bat dago, guk jo egiten dugu eta denak gonbidaturik daude»

**Jaiak** › Herralde Katalaneko La Pegatina taldeak kontzertua eskainiko du etzi, ostiralean, Esne Beltza eta Ze esatek euskal taldeekin batera.

Pegatina Sound System musika taldea 2003. urtean sortu zuten hiru kidek. Horien artean Adria Salas (Herralde Katalanak, 1985) aurkitzen zen. Ondoren Sound System kendu eta lau kide gehitu zituzten, guztira La Pegatina osatuz. Arrakasta eman zien lehen diskoa 2007an kaleratu zuten, *Al Carrer!* izenekoa. Bigarrena, *Via Mandarin*, aurtan irten da labetik. Autogestioarekin hasi baziren ere, azken lan honetan diskoetxe baten beharra ikusi dute. Hori bai, baldintza batekin joan ziren diskoetxera: «Internet bidez doan jaisteko aukera jartzen dugu edo taldearen historia hemen amaitzen da».

**Ezagutzen ez dugunontzat, nola aurkeztuko zenuke La Pegatina taldea?**

Taldea ezagutzeko nire ustez zuzeneko kontzertu batera joan beharra dago. Kalean edo dendetan bi disko ditugu baina nahi duen guztiak doan lor ditzake gure webgunetik jaitsiz gero. Guretzat garrantzitsuen jendea kontzertuetan egotea da; berotasun horrekin zazpiok oholntza gainean *liatzen* lizuzteko izugarria baita. (Barreak). **Nolako musika egiten duzue?** Rumba dela esaten dugu baina jendeak ez dezala espero eserita ego-

teko moduko rumba lasai bat entzuterik, ez baita horrela izango. Behin edo behin esan digute kaxarekin eta espainiar gitarrarekin ibiltzen diren punky-ak garel... (Barreak). Jendea denbora guztian saltoka, kantari etabar egoten da. Ez dut uste inongo estilo zehatzik dugunik. Gu jendea dibertitzera goaz eta denek ongi pasatzea nahi izaten dugu. Hori dagure filofia: jai bat antolatzen da; guk jo egiten dugu eta publiko guztia gonbidaturik dago.

**Taldearen letrak nolakoak dira?** Lehen diskoan aldarrikapen kutsuko bi edo hiru kanta sartu genituen, oso gazteak ginelako agian. Orain taldearekin 6 urte daramatzagu eta helduagoak sentitzen gara. Letrak egiterako orduan sentimenduak, kantu landuagoak... sartzen saiatzen gara. Egia esan aldarrikapen kantuak idaztea da errazena, nahi gabe iriteten zaizkizulako. Bigarren diskoan berriz beste gauza batzuk irten zaizkigu. **Zuzeneko talde bat zaretela irakurri dut behin eta berriz. Zer egiten duzue ba oholntza gainean?**

Antzerki moduko bat dela pentsatzen dugu agian baina ez doa hortik. Zuzpi taldekide gara oholntza eta mugimenduz beteriko zuzeneko eskaintzen dugu. Bakoitzak

bere protagonismoa edukitzen du momentu jakin batean eta gezurra dirudien arren nahiko landua edukitzen dugu hori dena.

**Lehen diskoan Manu Chao eta Che Sudaka bezalako kolaborazioak eduki zenituzten. Nondik dator kontu hori?**

Ruben, gure gitarra eta proiektu hau martxan jarri zuena, La Colifata izeneko ekimen batean interesaturik zegoen. Buruko arazoak zituzen erietxe baten aldeko proiektua zen eta Manu Chaok disko bat produzitu zuen ekimena bultzatzeko. Bertan hainbat taldek hartu zuten parte, horien artean Che Sudaka aurkitzen zen. Talde honetako abeslariak saltzen zuen diskoa. Orduan, erosi nahi izanez gero, berarekin geratu eta eskura saltzen zizun. Rubenek horrela ezagutu zuen Leo. Harremana egiten zuten, elkarrekin gitarra jo-

**«Taldea ezagutzeko onena zuzeneko kontzertu batera joatea da»**

**«Kaxarekin eta espainiar gitarrarekin ibiltzen diren punky-ak garelako esan izan digute»**

tzera joaten hasi ziren eta gero Bartzelonako El Mariachi tabernaren inguruan hasi ziren biltzen. Manu Chao mugimendu honen barruan ezagutu zuen eta lehen

diskoa ateratzekoak ginela jakin zutenean, denek laguntza eskaini ziguten. Euren esker jendea gutaz hitz egiten hasi zen eta lehen diskoa asko zabaldu zen. Gero handitzen eta handitzen joan da kontua eta adibidez ostiral honetan La Mala Rodriguez, Elbicho eta Gentleman bezalako taldeekin aurkitu gara oholntza gainean. Izugarria izaten ari da dena.

**Lehen diskoaren oinarria autogestioa izan zen. Zaila da filofia horri eustea, ezta?**

Bai. Nahi edo ez aldatu beharra zegoen. Jendeak diskoak lortu nahi zuten eta autogestioaren bidez ez ginen dendetara iristen. Lehen diskoa kontzertuetan, ileapaindegibatean eta lau tabernetan saltzen genuen. Gero Internet bidez dohain jaisteko aukera ere hor zegoen. Bigarren diskoarekin ordea bi gauza argi genituen: dendetan egon behar zuela eta Internetetik doan jaisteko aukerarekin jarraitu behar genuela. Horrela izan behar zuten edo taldearen historia hori bukatzen zen. Lehen diskoa Interneten zintzilikatu genuen eta bigarrenekoarekin hori ez bagenuen egiten, iritsi garen lekura horri esker iritsi garenean... Diskoetxera ideia horrekin joan ginen. Baietz esan ziguten, baina baldintza batzuk; dena guk ordaindu behar genuela esan ziguten: kopiak, publizitatea, bideo klipak... Euren berriz dendetan banatuko zuten diskoa, promozioa egitearekin batera. Adostasunera iritsi ginen. Gero,

emaitzak ikusi ostean, nire ustez eurak ere konturatu direla bide egokia hartu genuela. 500.000 deskargabaina gehiago eduki ditugu eta horretaz gain 5.000 disko inguru saldu dira. Izugarria izan da.

**Joxe Ripiauren ukituren bat hartu diot zuen kanturen bati. Posible da edo nahastu egin naiz?**

Baliteke kanturen batek ukitu hori edukitzea. Kontzertuak gainera *Aqui no hace falta cama, aqui nadie va dormir...* joaz hasi ohi ditugu; jendeak nondik joango garen hasieratik argi izan dezan.

**Ze esatek eta Esne Beltzarekin joko duzue Zizurkilien. Ezagutzen al dituzue?**

Esne Beltzarekin Groseko Jaietan jo genuen eta oso jende jatorra da. Bartzelonara ere etorri izan dira eta niri pertsonalki asko gustatzen zaizkit.

**Katalanez, gaztelerez, galegoz eta portugesez abesten duzue. Nondik dator mestizaje hori?**

Natalanez eta gaztelerez argi dago zergatik. Bartzelonan egunerokotasunean hori bizi dugu. Ez dirudi baina denek ez dute hemen katalanez hitz egiten. Galegoa berriz Rubenen bidez sartu dugu. Bere aita Galiziakoa da eta ama Sevillakoa. Udaran Galiziako plana asko gustatzen zaio eta kultura hori oso barneraturik dauka. Portugesari dagokionez, Meninos de Rua do Brasil izeneko proiektua aipatu behar da. Beharrean dabiltzan haurrei laguntzeko ekimen bat da eta bertako taldeekin harremanetan ibili gara, kanturen bat sortzeko asmoz. Hor ibili gara e-mail bidez pistak bidaliz etab. eta azkenean kantu bat atera dugu eurekin kolaboratuz. Kantuaren eskubide guztiak ekimenaren esku gelditu dira. Horrelako proiektuekin bat egitea funtsezkoa iruditzen zaigu.